

Haur, nerabe
eta helduentzat

Atelierren faktoria

2025/26 ikasturteko ikastaro eskaintza



ESKUALDE BAT
AIARALDEAK
HAMABOST

AIARALDEA EKINTZEN

FAK
TO-
RIA

**Matrikulazioa
zabalik!**

Amesteko eta bizitzeko Faktoria

2021z geroztik, Laudioko Gardea industriagunean kokatutako 750 metro koadroko pabilioi multifazetikoak hainbat espazio eta jarduera barne hartzen ditu euskaratik eta euskaraz: kultura emanaldiak, solasaldiak, ikastaroak, aurkezpenak, ume eta nerabeentzat ekintzak, familientzako eskaintza... Hezkuntzatik, kulturatik, elikadura burujabetzatik, komunikabidetik, feminismotik zein ekonomia sozial eraldatzailetik abiatzen gara.

Ongi etorri euskararen plaza eta gozamen espazio librerak!

2025-2026 ATELIERRAK

Gaurkoan, 2025-2026 ikasturterako prestatutako eskaintza aurkeztuko dizugu! Ikusi nahi?

Telefonia

946 56 85 54 · 693 85 53 12

Emaila

faktoria@aiaraldea.eus

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:30

Larunbatero: 10:30-14:00

+ Ekintzak daudenean.

Programazio soziala ikusgai: www.faktoria.eus

Helbidea

Errotari kalea 4-8 Laudio (Araba)

 @aiaraldeaekintzenfaktoria

 @EkintzaFaktoria

 www.faktoria.eus

 Harpidetu gure Whatsapp kanalera:



Oharrak

Izen-ematea

Jardueretan parte hartzeko ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea eta matrikula ordaintzea (Informazio guztia www.faktoria.eus webgunean dago). Digitalki zailtasunak izanez gero, Faktoriara bertaratu eta harrera puntuan dagoenak lagunduko zaitu.

Partaide muga

Izen ematea toki kopurua baino gehiago bada, izen ematearen hurrenkera hartuko da aintzat (plaza konfirmatzean bideratuko da ordainketa, eta orduan bukatuko da izen-emate prozesua).

Ikasturte osoa

Saioak urritik ekainera izango dira, eta eskola egutegiaren arabera antolatuko ditugu. Izena ematen duenak ikasturte guztian parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

Izen-ematea bertan behera uztea

Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi duenak, Faktoriako Atelieren koordinatzaileari jakinarazi beharko dio hilabete bateko epearekin. Hala, izen-ematea eta ordainketa hurrengo hilabetean utziko da bertan behera.

Prezioa

- Prezioa ikasturte guztikoa da, ez da saioka kobratuko.
 - Ordainketa hilabeteka zatikatzeko aukera egongo da.
 - Hilabetero berdina ordainduko da, hilabete horretako saio kopuruak kontuan hartu gabe.
 - Egoera zaurgarrien aurrean jarri gurekin harremanetan (faktoria@aiaraldea.eus edo 693 855 312 telefono bidez) eta faktoriak ekarpenak egiteko bestelako aukerak eskainiko ditu.
-

Taldea osatzeko partaide kopurua

Taldea osatzeko 8-10 lagun behar dira, bestela ez da saiorik emango.

Zalantzak

argitzeko jarri gurekin harremanetan: faktoria@aiaraldea.eus-en bidez edo 693 855 312 telefonora deituta.



	Astelehena	Martitzena	
11:30–13:30			
16:00–16:15			
16:15–16:30			
16:30–16:45			
16:45–17:00			
17:00–17:15			
17:15–17:30	KERAMIKA ETA ARTEA	BIDEO PODKAST TAILERRA	SUKAL- DARITZA ETA NATURA
17:30–17:45			
17:45–18:00			
18:00–18:15			
18:15–18:30			EUSKARA SALTSANI (hastapen taldea)
18:30–18:45	MARGO ATELIERRA	ANTZERKI ATELIERRA	
18:45–19:00			
19:00–19:15			
19:15–19:30			
19:30–19:45			EUSKARA SALTSAN II
19:45–20:00			
20:00–20:15			
20:15–20:30			
20:30–20:45			
20:45–21:00			

Eguaztena	Eguena	Barikua	Zapatua	
			ATELIER PUNTUALAK	
ARTE ESZENIKOEN ATELIERRA I				
ARTE ESZENIKOEN ATELIERRA II	DANTZA SORTZAILEA	BARIKU PLAZAK Gozatu eskaintza bereziez Faktoriako kantina zein aisi guneetan!		
YOGA ATELIERRA	KOMUNITATE FAKTORIA (Baka(i)rrizketak, solasaldiak, sormen egonaldien ate irekiak eta eskualdeko eragileen ekimenak)		BARIKU PLAZAK Gozatu eskaintza bereziez Faktoriako kantina zein aisi guneetan!	

Haur eta nera- been *atelierrak*



Eguna eta ordutegia

Astelehenetan 17:15–18:45

Keramika eta artea

Buztinarekin esperimentatzeko tailerra izango da. Eskulanekin jolastu, disfrutatu eta gozatzeko aukera egongo da. Sormena garatzeaz gain, eskuak zikindu eta sorkuntza bereziak aterako ditugu.

Adina

2016–2021 bitartean jaiotakoentzat

Irakaslea

Aitziber Duarte

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 6tik ekainaren 15era

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 40€

Ez-bazkideek 45€

* Prezioaren baitan daude materiala eta postprodukzio gastuak.



Eguna eta ordutegia

Martitzenetan 17:15–18:15

Sukalda- ritza eta natura

Gure inguruan topatu ditzakegun garaiko produktuekin sukaldaritza saioak egingo ditugu. Gure lurra aztertu eta bertatik atera daitekeenarekin kozinatzen ikasiko dugu. Amalurrak eskaintzen diguna jaso, eraldatu eta jateko aukera izango dugu tailer honetan!

Adina

2016–2022 bitartean jaiotakoentzat

Irakaslea

Aritz Lili Lekanda

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 7tik ekainaren 16ra

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 25€

Ez-bazkideek 30€



Eguna eta ordutegia

Astelehenetan 17:15–18:45



Bideo- podcast atelierra

Euskaraz ahozotasuna lantzeko atelier paregabea, bideo podcast bat hasieratik bukaerara zelan egin daitekeen ikasiko dugu elkarrekin. Publikoan mintzatzeko gaitasuna, teknologia berrien erabilera, elkarlana eta beste hainbat balio bereganatuko dituzte atelierrak, euskarazko komunikazio eta teknologia berrien erabilera ardatz hartuta!

Adina

2010–2015 bitartean jaioetakoentzat

Irakasleak

Izaro Fombellida, Maddi Sautua eta Xabier Gomez

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 7tik ekainaren 16ra

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 15€

Ez-bazkideek 20€

*Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako jarduera

Eguna eta ordutegia

Eguaztenetan

16:00–17:30/ 17:30–19:00

Arte eszeni- koak

Gorputza eszenan frogatzeko aukera izango dugu atelier honetan. Gure gorputzak dituen alderdi ezberdinak jorratzeko aukera izango dugu: ahotsa, mugimendua... Jolasen bidez arte eszenikoen munduan sartuko gara!

Ordutegiak eta adina

16:00–17:30 2012–2015 bitartean jaioetakoentzat

17:30–19:00 2009–2011 bitartean jaioetakoentzat

Irakaslea

Leire Sanjurjo

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 8tik ekainaren 17ra

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 20€

Ez-bazkideek 25€



Eguna eta ordutegia
Eguenetan 17:15–18:15



Dantza sortzailea

Musikarekin eta gorputzarekin goatzeko espazioa izango da. Ez da dantza ikastaro bat, dantza eta gorputza erabili egingo dira jolasteko, ondo pasatzeko, eta musikaz goatzeko. Gorputza izango dugu lan tresna, baina ez da dantza bat ikastea izango helburua; norbere gorputza ezagutu eta elkarrekin goatzea baizik!

Adina

2016–2021 bitartean jaiotakoentzat

Irakaslea

Maria Iturbe

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 9tik ekainaren 18ra

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 25€

Ez-bazkideek 30€

Hel- duen

atelierrak



Eguna eta ordutegia

Astelehenetan 18:30–20:30

Margo eskola

Gurene Granderen eskutik, sorkuntzan eta margoan murgiltzeko aukera izango dugu, esperimentatzeko, sortzeko eta gozatzeko. Irudimena eta sormena ardatz, norbanako zein taldearen alderdi sortzailea indartzea eta ahalduntzea bilatuko dugu! Arreta prozesuan jarriko dugu, emaitzan baino.

Urritik ekainera akuarela teknikan murgilduko gara, eta margoa eta uraren arteko dantzan margo teknika desberdinak tanteatuko ditugu. Ikasturte erdian taldean erabakiko dugu hurrengo hilabeteetan akuarelarekin jarraitu edota teknika berrietan sakondu (oleoa, grafitoa...).

Irakaslea

Gurene Grande

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 6tik ekainaren 22ra

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 35€

Ez-bazkideek 40€



Eguna eta ordutegia

Martitzenetan 18:30–20:30

Antzerki eskola

Ainhua Artetxe zuzendariaren gidaritzapean, antzerkian murgiltzeko aukera izango dugu. Sorkuntza eszenikoan, zaintzan eta prozesuaren gozamenean oinarritutako ikaskuntza esperientzia bat izango da. Tailer honetan, elkarren artean konektatuz, plazera ardatz hartuta bakoitzak ditugun espresio ezberdinak aztertzeko aukera izango dugu.

Irakaslea

Ainhua Artetxe

Irakasle gonbidatuak: Graziela Doniz, Nagore Cenizo, Eva Laorden, Miren Gaztañaga...

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 7tik ekainaren 23ra

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 35

Ez-bazkideek 40€



Eguna eta ordutegia

Eguaztenetan 19:00–20:30

Yoga eskola

Ordu eta erdiko saioak izango dira astean behin, eta nola ez, euskaraz garatuko da gorputzarentzat eta arimarentzat osagarri den eskola eder hau. Yoga eskolan zehaztasun teknikoa eta intentsitate fisikoa landuko dira arnasketarekin batera, gorputza eta buruaren integrazioa garatuz kontzientzia eraldatzeko. Segurtasunez aurrera egiteko, era progresibo eta egokian landuko dira postura ezberdinak, zailtasun pertsonaletara moldatzeko gailuak erabiliz hauetan ongizatea eta exekuzio zuzena areagotzeko.

Irakaslea

Josu Artetxe

Hasiera eta bukaera datak

Urriaren 1etik ekainaren 17ra

Prezioa hilabeteko

Bazkideek 27€

Ez-bazkideek 33€



Eguna eta ordutegia

Hilabeteko bigarren zapatuetan

11:30–13:30

Keramika tailerra

Hilabeteko bigarren zapatuetan elkartuko gara. Ekintza emakumeentzat* izango da (ez mistoa). Tokiko artisauekin saretze eta ahalduntze sortzailerako jarduerak antolatzea da gure asmoa, eta horretarako Aitziber Duarte izango dugu atelierraren gidari. Saio bakoitzean keramika pieza bat sortuko da, eta artelan hori etxera eramateko aukera egongo da behin labetik pasata.

Irakaslea

Aitziber Duarte

Datak

Urriak 11 · Azaroak 8 · Urtarrilak 10 · Otsailak 7
Martxoak 7 · Maiatzak 9 · Ekainak 13

Prezioa

Bazkideek 25€/saioa
Ez-bazkideek 30€/saioa

Izen ematea:

Faktoria.eus-en egingo da, hilabete bakoitzaren hasieran (hurrengo saioari begira). Plaza kopurua mugatua izanik (12 lagun), izen-emate eta ordainketaren hurrenkera izango da baliatuko dena.



Eguna
**Hilabeteko azken
zapatuetan**



Atelier puntualak

Atelier jarraiez gain, aurtengo ikasturtean, atelier puntualak ere antolatuko ditu Faktoriak. 2025eko udaberrian proposamen bilketa egin genuen sare eta oinarri sozialarekin batera, eta ondorengo ideiak jardueretara ekarriko ditugu ATELIERREN FAKTORIA 2025/26 egitasmoaren baitan:
Lehen sorospenak, kirol psikologia, zirkoa, sukaldaritza, dantza, argazkilaritza...

Atelier puntualetako irakasleak auzolanean eta sarelanean lotuko dira. Atelier bakoitzaren iraupena, ordutegia eta gainontzeko xehetasunak banakako karteletan iragarriko dira, ohiko komunikazio kanalen bitartez.

Data erreferentzialak

Urriak 25 · Azaroak 22 · Abenduak 13 · Urtarrilak 24
Otsailak 21 · Martxoak 21 · Apirilak 18 · Maiatzak 23

INFO+

www.faktoria.eus

Oharrak

Atelier puntualen bat dinamizatzeko edo eskaintzeko prest zaude? Jarri gurekin harremanetan 688 625 900 telefono zenbakira idatzi edo deituta

Atelierren egutegia

urria 2025						
	1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

abendua 2025						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

otsaila 2026						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

apirila 2026						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ekaina 2026						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

azaroa 2025						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

urtarrila 2026						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

martxoa 2026						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

maiatza 2026						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

- Ez da atelierrik egongo.
- Euskararen nazioarteko eguna.
- Ez dago atelierrik.
Batu deialdietara!
- Egun hauetan ez da haur eta nerabeentzako atelierrik egongo.

[illegible]

Bizitzeko, Amesteko, Faktoria



FAKTORIA/

faktoria@aiaraldea.eus
946 56 85 54
www.faktoria.eus



KULTURA/

kultura@aiaraldea.eus
633 51 73 83
www.kulturfaktoria.eus



HEZKUNTZA/

kokoriko@aiaraldea.eus
693 85 53 12



ELIKADURA/

ekonomatua@aiaraldea.eus
722 84 67 62
www.ekonomatua.eus



FEMINISMOA/

feminismoa@aiaraldea.eus
688 62 59 00



KOMUNIKABIDEA/

erredakzioa@aiaraldea.eus
688 84 81 52
www.aiaraldea.eus



ZERBITZUAK/

komunika@aiaraldea.eus
688 62 53 94
www.komunika.eus

